


# ZER

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

252n. zenbakia  
bagilla 2000



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE



## ZIORTZA

### IRUSTA ABATAREN ILLOBIA

## BABARRI

### 4n. SARIA

1937-03-31

Euskal Erriko Lege Zaar aiek,  
nortasun baten soroa,  
udaberriko goxotasunaz  
ortik datorrit gogoa.

Euskal arnasaz Erri au zutik,  
itxaropentsu dijoa.

Jaungoikoa'ren Lege Santuan  
eskubide du geroa.

Pake santuan orrelaxe bizi zan, Euskal Erria, baiña...

Gure sorterriaren teilla-azprietan gertatuetako bat da  
ipuin antzeko au, egi bihurturikoa.

Euskal Erriko, mendi-zelai eder batean kokatutako  
baserria da Babarri. Udaberria inguru orren jabe da.  
Barruan maitasunaren epela.

Sutondoan egur igar kiskaliaren berotasuna.

Sendia burubelarri bere eginkizunetan, bakoitzari  
dagokion eran eta neurrian. Orrelaxe Bizi dira: Amona,  
alarguna. Onen semea eta emaztea, eta orien iru ume.  
Egunoroko biziaren arian bakoitza bere eginbearretan.  
Zaarren lana eta umeen jolasa, zorionaren solasa.

Goizean goiztik, aita jaiki da eta lantokira joan aurre-  
tik, beien gobernatzea eta ukulluko gañontzeko lanak egi-  
ten ditu emaztearekin batera

Onak esnea eta barazkiak bezeroei eramatera. Eta  
amona etxeko lanetan eta umezain Ume zaarrenak 5 urte  
ditu; bigarrenak 3 eta azkena jaioberria da.

Egunak joan eta egunak etorri, orrela egunen joanean  
eginkizunak bete, eta bizi.

Amonaren esanak eta oroitzak umeen ezieran. Fedegiroak eta sakoneko euskerak betetzen dute baserriaren arima. Pozaren pozez biltzen da egunoro famili osoa illunabarrean aita etxeratuta Eta iristen ikusten dutenean, bi ume zaarrenden poza! Aita, etorri zera...! Jaioberria seasatik, zerbait ere, ankez, besoez eta aotsaz adierazi naiean.

Iritxi da egun bat ordea, beste egunak bezelakoxea  
zabaldu dana, ustez. Baiña urrutik badatoz egazkin nabar  
antzeko batzuk.

Aita eta ama, irten dira elkarrekin egunoro bezala,  
beren eginkizuna betetzera. Urrutira, motor-otsa entzuten  
dute.

Baiña, ez dira arritzen. Errigunera iritxi orduko, motor  
ots ikaragarria gaiñean.

Guda... guda... guda madarikatua! !! Goitik beera dute.  
Leerkeriak etenik gabe. Eztanda an-or-emen. Aal dute-  
na egiten asi dira biak nonbait ere estaltzeko asmotan.  
Emazteak babespean sartzerik izan du. Eta, eskerrak!  
azken orduan, norbaitek bultzatu zuan, laister baiño lais-  
terrago babespean sar dadin. Bestela Leerkeriak berea

egiten ari diran bitartean... Senarrak tokirik ez, eta etxeko  
atzekaldera jo bear izan du. Baratz bat dago.

Ixildu da leerkerien danbatekoa, burrunda, eztanda.  
Gero ondamena, zauria, eriotza, etxeak leertuta goitik-  
beera. Apaiza meza ematen ari zela ere, parrokia bonbar-  
deatua izan da. Ez dakigu nolako, nongo, eta noren "jaun-  
goikoaren" izenean.

Goiza aun-era doa. Ama etxera, esnea eta barazkiak  
bezeroei utzita. Eguardia da. Bazkaltzeko garaia eldu da.

Aita ez da iritxi. Lanak luzatuta berandu egin ote zaio?  
Ba-da artean itxaropenik. Orduak aurrera, aita ez da ageri.  
Arratsalde luze osoa igaro da. Illunabarra eldu da gain  
jantzi beltzarekin.

Pentsamenduaren laiño beltzak kokatu dira Babarri'ko  
baserrian. Barruan, kezka, urduritasuna, atsekabea, gei-  
tzen eta geitzen Aita zauritua izan ote da?

Auzokideak atsekabea lagun. Eta amaren aizpa ere  
bere senarrarekin Babarri'n dago. Eta koñatu ori, baserri-  
tik erten eta badoa, gertakariak izan diran inguruetara zer-  
bait jakin naiean. Aita oraindik bizi danaren itxaropena  
baiña, iritxi da eta aita gaixotegian ez dago. Zer gertatu  
ote zaio Babarri'ko aitari...?

Gero, koñatua leerketa eta eztanda izan diran lekueta-  
ra. Badaki, Babarri'ko aitak nora jo duan goizean, leerka-  
rietatik estali naiean. Baiña zoritxara!

Agur itxaropena! !! Bera sartzen ikusi duten baratza,  
leerkariak, bonbak bete-betea jo du.

Gero... arrastorik ere ez...

Gau illunak estali du Babarri. Barruan, bi ume zaarre-  
nak, galdezka: Aita? Amona eta erreña malkoei ezin eutsi-  
rik, umeak kolpetik konturatu ez daitezten. -Lo egizue-, dio  
amak. Noizbait nekeak jota, iru aurrak loak artuta daude.

Sukaldean, sutondoan, amona eta erreña, leertu bea-  
rrez, begiak urbegi bihurturik, Jaiñoaren itxaropenetan.  
Errosario santua errezatzen asi dira.

Babarrin illuna nagusitu da. Kanpoan eta barruan.

Sugarra, kezulotik, beetik gora.

Goizekoa, goitik beera.

Infernuan ere izango al da...

1999-03-31

Aberri onen ibil-bidean

garai bateko eskola,

txorien gisan euskerarentzat,

bazirudien kaiola,

Nortasun baten sorburu izanik

eta askori, bost ajola!!

Alarik ere zutik da orain

euskal senaren arbola.

# ABERTZALEAK BATUTA ALA SAKABANATUTA?

Poz aundi bat artu gendun abertzaleak gure Lege-Batzarrean alkartuta ikusteagaz, baiña ez da izan iraunkorra gure poza, zori txarrez.

Elburu batek alkartu ginduzan: gure aberria bere buruaren jabe ikusteko itxaropenak, baiña artu ziran bideak luzeak zirala, astiroegi giñoiazala, uste eben izkilludunak eta bake-aldiak etena izan eban, apurtu egin eben, barriro be ain kaltegarri jakuzan erailketak agertu ziran gure errira.

Egoera onetan EH'ri alderdi españatarrak ilketa orreik "kondenatzeko" eskatu eutsoen. Ez zan naikoa "min emon dauskue" edo olako zerbait esatea, ez zan naikoa

ez da ETA'gaz alkartzeagatik! ETA sortu baiño askoz lenagoko guraria da au.

Orretan alkartuta egonik, zer da banatzen gaituna? Ori lortzeko bideak zeintzuk diran edo epea zein izan daiteken. Orra or banatzen gaituan arazoa! Ezin ete leike alkartasun batera eldu arlo orretan? Gure arerioak pozik dagoz gu bananduta ikusi ezker. Alkartu gaitzean ba! Eta ez dagiela esan EH'gaz alkartu ezker ez gagozala demokrasi-bidean. Ori ez da orrelan. EH legezko alderdia da eta legea beteten ez ba'dau arerioak izango dira lenengoak legez-kanpo ipinten, baiña legezkoa dan artean itzi beiskue alkartzen. Guk alkartasuna ez daigun apurtu sekula!

## ZER ALDIZKARIA

**Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (3.000 pezeta) kontu onetan:**

**EUSKERAZALEAK**

**BILBAO BIZKAIA KUTXA**

**Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5**

**Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!**

**Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 3.000 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear.**

**Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.**

**Eskerrik asko!**

"alkar-izketaren bidea artu dogu" esatea. "Kondenatu" esan bear zan. Eta iñoren esanera egoteko gertu ez dagozanak, ez dabe esan gura itz ori.

Zein izan da ondorena? Lenengo, EAJ ta EA izukerizaleakaz batera dabiltzala eta ez dirala demokratikoak esatea. Alderdi oneik "kondenatu" esan dabe, baiña ez da naikoa, besteakaz ezelako artu-emonik cz eukitea eskatzen dabe. Eta bigarren ondorena txarragoa izan da: Alderdi bi orreik erakunde barriak sortzeko bidetik ez doazela esanaz EH'k laguntza ukatu dautse eta gure Lendakaria 27 aldunegaz egoera larrian itzi dabe.

Eta egoera onek beste ondoren txar bat ekarri dau. Alderdi españatarrak Ibarretxe gure lendakaria kendu egin gura dabela diñoie bear dauan beste laguntza ez daukalako. Barriro auteskundea egitea eskatzen dabe. Euren ustez urrengo lendakaria Iturgaitz edo Mayor Oreja izango da. Au bai egoera negargarria! Lendakaria kendu baiño lenago ez ete dira etorriko EH'koak curen laguntza emoten? Eta etortekotan zeintzuk izango ete dira baldintzak? Dana dala, lau urteko epean ikusiko genduke zelakoak diran agintari españatarrak.

Gauzatxu batzuk gogoratu daiguzan: Alderdi abertzale guztiak dauken elburu bakarria Askatasun osoa da eta au

Eta kanpotik etorriak zareenok, ez izan bildurrik. Euskaldunok onartuak izan gara munduan eta geuk be datozenak onartzen doguz. Alkartuta atera daigun aurrera erria.

Eritxi batzea edo "referendum" eskatzen dabe batzuk: abertzaleak, EB'k eta PSE'ko gazteak. Egin beite! Baiña au ez aitzu: Guk irabaziko dogula uste izan arren, eurak be bai, eta orregaitik ez dabe nai ori egiterik, galduko ba'gendu be ez uste izan betiko danik ezetz ori. Urte batzuk barru barriro egin bearko litzake, bein eta barriro, epe izendatueta. Ori eskatzen dau demokrasiak eta orrelan egiten da toki askotan, baiña emengo demokrazia laburtxua da. Gu Erria gara eta erri lez erabagiak artzeko eskubidea daukagu. Au ez dabe ukatu bear gaur arerio jakuzanak: Guztiak aintzat eta ontzat artu bear dabe emen erri bat dagoala, Frantziaren eta España'ren artean banatua eta Naparroa barru dala, "zazpiak bat"ek osatzen dauana. Ori onartzen danean, erriak esango dau zein bide artu jaureketa-bidean, politikan: Zazpiak batera ala orain lez ala beste buru-jabetza batzutan... Beti erria aintzat artuta!

OLAZAR'tar Martin

# GERNIKA'KO BATZAR-ETXEA (I) GARRANTZIA

Bizkaia'n doguzan oroitete guztien artean garrantzitsue-  
na Gernika'ko Batzar-Etxea dogu, gauzea edesti -eldetik  
begiratu ezker. Ertia begiratu ezker asko dagoz obeak eta  
antxiñakotasunari begiratu ezker be bai, baiña gure Erria  
nondik nora ibilli dan jakin nai ba'dogu, edestia begiratu nai  
ba'dogu, Etxe au dogu lekukorik onena, "Zer" onetan ager-  
tuko diran sei-bat idazkitan ikusiko dogun Tez. Bizkaitarren  
biotza dogu etxe au edo jaunerriaren ama-etxea. Eta ori  
baiezatzaten dabe batzarren atxekotasunak, batzarretan  
legeak egin ebezenen zuzentasunak eta zintzotasunak. Or  
agertuko jaku gaur egun be Bizkaia'k zer dauan bere-berea.

\* \* \*

Batzar-Etxea esatea Bizkai osoa esatea da. Etxe onetan  
agertzen dana beti da bizkaitartasuna, leiñargitasuna eta gar-  
bitasuna.

Gernika uri lez 1.366n urtean irasi eben baiña orduan be  
ezaguna zan Gernika Zarra lurraldea eta lurralde onetan ariz-  
tia ta baseleiza bat. Arizti aretatik geratzen dana da Gerni-  
ka'ko zugatza eta baseleizea egon zan lekuan daukagu gaur  
Zin-Eleizea. Andra Mari Zarrarena deritxona. Auxe da  
Batzar-Etxea.

\* \* \*

Antxiña baten bizkaitarren batzarrak toki askotan egiten  
ziran, baiña astiro-astiro sartu zan beti batzarrak Gernika'ko  
zugazpean egiteko oiturea. Orregaitik zugatz au mundu guz-  
tian da ezagutua ta goratua, abestua ta gurtua, eta Iparragirre  
abesleri txalogarriak diñoan lez, "eman da zabaltzazu mun-  
duan frutua". Zugatzen artean "Zugatza" da Gernika'koa.

ii \*

Gaurko Batzar-Etxe au 1.826'tik 1.836'ra egiña da, orre-  
gaitik Klasiku-Barri tankerakoa, tankera onek eskatzen  
dauan lez apaingarri gitxikoa, latza, aundikeri-bakoa.

Egin zanean sarrera ta orma gurena, nagusia, zugatzera  
begira egoan, baiña gure aldi onetan etxe onetara sartzeko ez  
da artzen ate ori, lenago eleizara sartzeko atea eta etxe osoa  
zanaren atzeko atetik baiño.

Etxegintzan erabilli zan oreka ez da agertzen etxe onetan.  
1833n. urtean etxegintza itzi egin bear izan zan, karlatarren  
gudak sortu ziralako eta etxea amaitu barik ikusten zan.

Lenengo, agiritegia dana egin eben, 1.826n. urtean.  
urrengo urtean zin-eleizea eta sarrerako ibilbide bi eta etxe  
bi onein artean gaur museoa dana be-barrua geratzen ziran.

Gaur batzar-Etxeak dituan tokiak oneik dira: Andra Mari  
Zarraren zin-eleizea, zugatzaren lekua ta zugazpean zin-  
tokia ta zugatz zarra, agiritegiak, Museoa, Zuzendaritza ta  
zaingo-gelak.

Batzar-Etxeak ibiltari ta ikusle asko erakarten dauz bera-  
gana Bizkaia'n. Goikoak naiz beekoak diran notiñak ugari  
etorten dira etxe au ikustera: ugari, arduratsu, jakin-nai aun-  
diagaz eta biotz beroagaz.

Mundu guztian da ezagutua toki au eta edestiz beterik  
dagoan ezker, beragana ekarten dauz ibiltariak, billatzai-  
lleak eta Jaunerriak beti izan dauan zintzotasuna ta jokabide  
zuzena zein izan dan jakin nai daben guztiak.


Benetako jakin-naia daukanak, egia dan lez jakin nai  
dauanak, emen agiritegi aberatsa aurkituko dau eta edestia  
ikutu egiteko aukerea izango dau.

Barru-miña daukana, nuntzebarri dana, ainbeste milla  
ikertzaille pozik eta alai joaten dira aurkitu daben ezagupe-  
na aurkitu dabelako. Izan be Bizkaia ta Euskalerrria zer izan  
diran jakin nai dauanak lenengo ta bein kontuan euki bear  
dauana, Gernika'ko Batzar-Etxea da.

Gaur gure erri-bizitzak arazo aundiak daukaz. Kanpotik  
etorri eta bertokotu barik dagozenak asko dira. Ez dabe eza-  
gutzen gure edestia. Errigintzarako gure artean izlari diran  
alderdi batzuk be ez, ez dakie guro erria zer dan, nondik  
datorren eta nora doan. Betoz Gernika'ra eta aurkitu begie  
erriaren oiñarria eta jakin begie beste Euskal-lurralde guztie-  
tan be, jokabidea antzekoa izan dala: Gogoratu Gipuzkoa'ko  
Batzarrak, Arabako Kuadrillak eta Arriaga'ko Kofradia,  
Nabarroa'ko Korteen oiñarria, Uztaritz eta Maule'ko batza-  
rrak. Eldu jaku Lurralde guztiok alkartzeko ordua, ori da  
euskalerrria, gure erria.

OLAZAR'tar Martin'ek

**Oarra:** Emen eta urrengo idaz-lanetan agertzen diran jakingarriak  
Bizkaia'ko Aurrezki-Kutzak argitaratu eban "Colección de Ternas Vas-  
cos"etik artuak dira, Francisco Sesmero Idazle zala (1975). Batzutan  
itzuli egiten dot, beste batzutan zerbait gaiñeratu eta iñoz eritxiak agertu.



Aritza dagon tokitik zin-elizara sartzeko atea.

## LOS ARKOZ'en EUSKARA

Ainbateko iturritik, Latxaga'k jakin eban Los Arkoz'en ere bazela senitarte abertzale bat, eta niri esan eustan bertara joan bear gendula, eurekin alkarizketa bat egiteko. Urrengo astean bertan egon giñan Abaskal'tar Rafa eta Sanz de Galdeano'tar Juli'rekin. Eskon-barriak ziran orduan, gaur, aste onetan ain zuzen, umetxo bat itxaroten dabenak.

Los Arkoz. erri txikerra eta polita baiña beargiña da, Nafarroako Ego-Sartaldean kokatuta. Bere Ipar-Ekialdean edo Ipar-Sortaldetik Lizarra; Ego-Sartalde edo Ego-Mendebaletik Biana; Ipar-Sortaldetik Kantauriko Mendikatea; Ego aldean Mendabia; Ego-Ekialdetik Sesma eta Sortalde edo Eguzki -aldetik Allo dira ingurutzen dabenak.

Los Arkos'era eldu giñanean, edaritegi batera joan giñan galdezka, eta ango jabea Rafel'en anaia izan zan, Abaskal'tar Tomas. Onartuak izan giñan eta beste edaritegi batera, aurrez-aurre, bidea eta enparantzaren beste alderdian kokatuta dagoanera bialdu ginduzan; bertan aurkitu gendun eta irripartsu artu genduzan gu eldu orduko, anaiak urrutizkiñetik esan eutsolako bidean garala.

Aurkezpena eginda, ezkertu genduzan, ez beragana joateagaitik bakarrik, bai berak esaten dauan-lez Arkuetara joateagaitik. ango nortasunezko ardurak oso negargarriak zirelako bere eritzian: "eskerrak, erri ontako gauzak berez sortzen dirala, bestela...".

Latxagak esan eutson, gure asmoa, berarekin izketaldi sakon bat egitea izan zala Arkueta'ko Euskera'ri buruz. Bere erantzuna: edaritegian arrabots edo zaratarekin eta berak bertako morroiketa egin bear eban ezkerro, zentzunezko elkar-izketarik ez gendula eukiko, eta gura ba-gendun beste egun batean egingo gendula bere etxean emaztearen laguntzaz, eta orretan geratu giñan.

Berak esaneko egunean joan giñan curen etxera, onartuak izanda. Aurkezpeneko sarrera eginda, Latxaga itanduten asi zan:

– Erri onetan Euskeraren zaletasunik bai?

\* Lengo egunean esan neutson, Arkuetako errian, gauzak bcrz sortzen dirala! Baiña badaude bai, barrenetik zirikitu ez-kero.

– euskerazko ikastarorik bai?

\* 1975'an Villa Mayor de Monjardin'eko gizon batek emote-ebazan olako ikaskizunak; orduan gu oso gazte izan giñan eta ez naz gogoratzen bere izenarekin.

—Nun eta zer ikasi zendun zuk?

\* Gizarteko mailladun Iruñean.

– Zure gurasoak Arkuetakoak dira?

↳ Ama bai, Aita kantauriarra, baiña kidetasun aundia daukona Euskerarekin.

— Eta zuk nolako zaletasuna daukazu Euskera gaitik?

\* Txiki-txikitatik Euskalduntasunezko izaerak beti arrotu nau!

– Eta zuk Juli, nun eta zer ikasi zendun?

Batxillerra ikasi neban Principe de Bianako ikastetxean, eta Gizarteko Mailladun, Iruñako Erri Ikastetxe Nagusian.

—Euskeraren zaletasunik bai'?

\* Zori txarrez ez dot ikasi, baiña laster izango da Rafa'ren laguntzaz.

– Nondik nora izendatzen dautsazu Los Arkos'eri Arkueta?

o Lizarra'n, Eusko-lege-zaarraren liburuetan agertzen dalako, eta Jimeno Jurio'en toki izeneko liburuan ere.

– Ikastolaren ametsik bai?

\* Bai!, baiño jazoten dana, erriko ikastarorako ez dagola aurrik. Len ingurutako erritatik batzen ba-ziran irureun ta larogei aur..., gaur eun ta emeretzi baiño ez dira. Urte baktotzean amairuk bakarrik izena emoten dabe. Erriko eskoletan, 2.000'n urterako adierazpena egin zan Euskera ikas-gai izateko eta irakasle bat ere ekarteko izan giñan. Amairu ama- aurren artean, amaikak baietza emon eben, batek itaun egin bear ebala eta besteak ezetz. Dana pikutara joan zan bertako erak aldatu ziranean.

Guk, eta gure errian beste batzuk, gero ta geiago maite dogu Euskara, eta nai-ta naiez lortu bear dogu ikastea.

Begitu nolako aldakuntza Nafarroako ur-baztar guztian; gura bai, baiña gaurko arazo barriekaz ezin!

Nik, uste-dot laguntza apur-bat bear dabela Arkuetako sendi-gazte auek, giza-barrenaren osasuna Nortasun aldetik bizkortu daiten.

ATUTXA'tar Paul  
Zornotzan 2.000'ko apirillan 22'an

# EUSKALDUNAK NEURTUTA?

Nik ezetz esaten dot. Baina baleiteke egia izatea, gure Euskal gorputzari ikerketa sakon bat egin ez-gero.

Dan guztia uste-dot batzen dauela, izatearen azalkuntzak edo edierazpenak. Or! agertzen dalako, nola! daukagun giza-barrena: "beterik Euskal arduraren elburuarekin, edo azal-apainketako itxura baten".

Orregaitik uste-dot, esaten daben antzera: "neurtuta gagozala".

Leenengo izaera indartsua da eta inundik inora makurtzerik nai-ez dauana, indar aundiak izan-arren aurka, berezitasun osokoa dalako. Bigarrena barriz, aiziaren indarra naikoa aldebatetik bestera ibiltzeko, bota ez ba-dau egiten, ondo erpaturik dauelako.

Egin daigun ikerketa au-ba, gure lotsagizunezko ardurak eskatzen daukun-lez.

Lau zatitan banatuko dot azterketa-au, askenean ondorio baten bidez buru-auste oneri argitasuna emeteko.

- a) Nortasuna
- b) Askatasuna

- a) arrokerizko nortasuna
- b) gaidunaren askatasuna

a) Nortasuna edo izatea da, ordezkartzako bizi-on baten bidez elburutzen dana gizon/emakume'en artean, eta goragoko ekintzan elburu nagusi-lez, erriaren nortasuna.

Orrek esan nai dau, gizon/emakume eta erria ren nortasuna bete egiten daben zertzelada guztiak, bikain ordainduta izan bear dirala bizitz onetan, izateko.

Sabinok, Arantzadi'ri 1901'an idazten dautson ezkutitzan, argi esaten dautso zein zan nekerik aundiena: "onetaz edo endaren gora-beran azterketa egiten asten nazenean, au bajoakula aitzen dot, eta bajoaku asi dogun gizaldia amaitu orduko". "Baserritarrak geiegi daki Euskereak ez dautsela ezertarako be balio seme/alabai". Zuzen-bide bakarra ba, lantokiak sortuaz da, baserriak erosi, lagun-arteko ontzigintzari eutsi, langintzako eta trebetasuneko elkarrekin antolatu, anai-arteko ongilleak eta arrantzeleentzako elkartasunak, nekazaritzako, abel-azikerarako, ibilbideak zabaltu eta jabetuz..., bizitzan, eskutarteko guztiak, Euskerea zozertarako balio dagian; nai-ta naiezkoa izan daitela artukuzuna eukitea".

Or ba, zergaitik diran zertzelada guztiak izatezko nortasuna beteten dabenak. Danak!, gorputzarenak ere bai, ata] txikerrena ere sartzen dalako izatezko kopuruan.

Emen baten-batek (etsaiak batez-be) esango dau: "ori endakeria da", edo "urrundik-be ez da egia ori".

Ludi onen gizatasunak, oraindiño zentzunezko erabagi aundiak artu bear ditualako, eta orreik, or diran artean bete bearrezkoak diralako. Orregaitik gaur, Nortasunezko garaia dira, Jainkoa'ren legeak agintzen daukun-lez; Ludi onen ardurak, Nortasun bakoitzak berezitasunezko burutakizun (conceptos) guztien artean beteten dabezelako; gai ontako sasi-jainkotasuna alboratuz, Ludi onen gizon/emakumei aukera bardiña emeteko Beren legeak eskatzen dauzkuen-lez. Ez da bide ona, gaur sortzen dana, sasi-jainkotasunarenako dalako, gauza guztiak esku gutxitan egoteaz. Ludi onen gisan, larritasun aundia dago ainbeste diru-goseko jokuan jolasteko. (Espainako jaurkintza, aldan guztian dabiltz zirikatzan, Euskaldunak bear daben arrazoizko gauzak geldi-erazteko, gu, ia aspertzen garan, eurok irabazle agertzeko. Amets-ori ez dabe lortuko).

Orregaitik zaindu bear dogu ainbeste etsaien aurka gure izaera berezia, eta esaten bada-be gu endakerietan gabiltzala RH'rekin, salatu! faziztak diralako orrek gauzak esaten dabezanak; guk beti esan doguna dala: "Berezitasun ori Euskalerrian aundia izateagaitik, eta artera etorri diran arrotzak, euren berezitasunak itxiarren, oraindino geien daukana Euskalerria dala".

Eta guzti-ori, Erri-bat, bai zaarrena be European, garala etsaiari esateko. Giza-iztia (Antropologia) ikas-kundearen fruitua dala, eta giza-izti fisikatik geien, giza ren zertzelada guztien azterketa egiteko, berezitasunak lortzeko eta jakiteko nortasunen ez-berdintasunak zergaitik diran.

"Maketoa" itza ere, ez dala guria, guk ez dogulako asmatu sekula! alangoko itzik. Santander'en asmatu zala itz-ori, gaztelarren kaia izan zalako, atzerrira itsasotik urteteko, eta an geratzen ziran gaztelarrak, ez ziren konpontzen bertakoakin, ortik! izen gaizto-ori. Orain be deitzen dautsie gaztelarrai izen gaizto orregaz Torrelabegan. (Aita Mauro'en ikerketatik neuri esanda).

b) Askatasuna lortzeko jaiotzen gara Ludi onetan. Baiña zer da askatasuna lotuta ba-gaude nai-ta nai-ez lur onetan zutunik erakar-indar edo astun-indarrarekin? (fuerza de gravedad)

Ori da itauna, beartuta gaudelako. Erantzuna erreza da, giza guztiak bardinak jaiotzen garalako Ludi onen fisikotasunera eta gelditu ezinezkoen bizitzara. Ortik! jaiotzen jakuz egin bearrak, eta ez edozelan eginda, gauza bakotzak era berezia daukielako euren eginkizunetan. Gai-au danontzat bardiña izanda egin bear berezietan, or! non jaiotzen jakun ardurea. Errezago orduan ulertzea: "danok ardura bardinekin jaiotzen garala", izaera berezitasunekin zaintzeko.

Askatasuna orduan, zenbaketa-bateko erabide baten argitu ez-gero izango litzake: "Askatasuna ren ardura jaiokeran emoten dauskun eskubidea, gauzak lotsagizun guztiaz egiteko, danok daukagun azpiko bardintanagaz".

Gizon/emakume eta gauzak, gogamenak (conceptos) baiño ez diran lez.... bakotzari berea emotea baiño ez!, bere bete-bearrezko ardurak lotsagizun guztiaz bete egin-bear dabezelako.

Lege orrekin jaiotzen gara Ludi ontara, eta lege-ori Jainkoa'rena izanda "ez dago nork" or inoren mezede edo giza maimenik izateko, nai koroi edo izkillu asko euki-arren. Ortik aurrera, dan guztia indarkeria dalako.

### ITXURAZKOAK IZAN EZ-GERO:

a) Arrokerizko nortasunean, edo giza-arteko norkerietan ibili ez-gero, arrotasunezko andikeri jokuan sartuta gabiltzala esan nai-dau orrek, umeen jokuen antzera. Eta egia da goitik begitzen ba-dautsagu, gu etxuragabetu egiten gaituan jantzi politakaz, umien edo ulermen-bako joko oneri, itxura aundiak emoteko.

Orregaitik gabiltz xautzailetasunezko jokuan sartuta edo ez-jakintzako bizi bat on-artuta: ardura bereziakaz Jainkoa izurratu naian, gai-Ludi ontan sasi-jainkoak izateko. Bildur aundi emoten dauzkulako, bear diran ikerketak Jainkoa'ren Lege bidetik eroateak alde-betetik, eta beste aldetik mozkortzen garalako, gaiari ataraten dautsagun on-mozkin guztiakaz zentzunez bizi al izateko. Aldenduten doguz gure gogoak ondo beteta egon daitezcan, orko bidetik inoiz betetan ez diranak, urren-eguneko goizean gosez beterik itzartzen garalako, gaiari ataraten dautsagun on-mozkin guztiakaz zentzunez bizi al izateko. Aldenduten doguz gure gogoak ondo beteta egon daitezcan, orko bidetik inoiz betetan ez diranak. urren-eguneko goizean gosez beterik itzartzen garalako. eta eriotzea agertzen dalako bakotzaren bizi-bide onen amaieran gazte edo zaartuta. Or! nun joaten garan JAINKOA'ren gana BEREN agindua bete barik. eta ziur gisa. etxea, erria larritasun aundi baten itxita, "NORTASUNIK GABE".

Gazteak, ez dabe madarikatuko gure ardurabako egikuntza, eta etsaiak orren joko-era gaitik jakinean sartzen dautsiezan ziri-pozoitsuak erriak iraun ez-dagian ba!! Bereala urten bear dogu zulo ortatik.

Arrokerizko Nortasuna. ez da ardurak zentzuz betetan dauzana; orregaitik utsean geratzen dira, ez diralako kontuan eukiten, balio-bako gauzak diralako. Alde-rantsiz bai! okerkeri galantak.

b) Gaidunaren askatasuna, amets ustela da, gala ez dalako nor. Ez dauka bizirik, JAINKOA ren agindua bete baiño ez dabelako egiten beartuta egoteagaitik, gure gorputza eta janaria izateko; borondaterik ez daukalako; arimarik ez daukalako: beartutako ARIMA'k, gu! gizon/emakumeak garalako.

Baiña badauka indarra bail, norkerian edo buruzalekerian sartzen gaitualako. Bere indarraren diztira, gure Arimaren antolamenduko ardurak, nastu edo nas-piltzeko izugarrizko deia egiten dauskulako, larritasun aundietan sartzen gaitu: leenengo, emoten dautsagun balioa antolamendu berezi-bat lortzeko, norgeiago batu edo euki, arrokeriz eta gai pozez bizitzeko, eziñ ikusiak sortuz. Bigarren: antolamendu berezi-bat bear dogulako, danon ardurak eta gose bereziak asetzeko neurri egoki baten, lapurketara bultzatzen gaitu; eta lapurketa orreek, begitu noraino eltzen diran, lurraldeak eta emakume/gizonak, euren borondatearen aurka menperatuta eukiteko.

Len, burutakizunaren (conceptos) berezitasuna aipatu dogu: ez dago bat! lapurketaren gaizkapenetik askatzen dana.

Ori da, gaiak emoten dauskun askatasuna?: "Ori, gaiaren giltzapean egotea da!, gaiaren morroi!".

Orregaitik konturatu bear gara, gaia itsua dalako, gure Arimaren zeregiña beren antolamendua dala, JAINKOA ren agindua beteteko. Or! askatasunaren jokoa, Ludi onetan poza ta pakean kokatzen gaituna; eta eriotzea eltzen danean istripuz edo indarra amaitu jakolako gure gorputz-burdi oneri, irabazi dogulako gai ontan, askatasun guztiaz BERE aurrean agertu gaitzan.

Gizaren askatasuna ba! ordezkartzeko bizi berezi on-bat da, gaiak eragin bardiña daukalako gizardietan zear.

### ONDORIOA

Lan ontan esan-gura izan dotena leenengo eta beñ, nolako arazoak diran sortzen jakozanak gure giza-bizitzari lur onetan. Kontuan eukiteko, danon arriskuak edo gal-bideak bardinak dirala.

Gaur-arte eta gaur egun egin diran eta egiten diran izugarrizko lapurketak erritar eta erriari, beti! esputaren indarrak izan dira eta dira, bestela, begitu baiño ez da bear gure erriaren edestiari eta gaur egunean Espaiña-ko gudalostearen keñadurari. Gaur, arrazoizko jakitasunaren buruz, beste goi-mailla baten gaudelako, espataren indarrak joko-kanpo geratu dira. Orregaitik guztiau ikusita, begitu daigun nolako jokoa bear dauan gure erriaren askatasunak, eta nola neurtzen gaitun Euskaldunak.

Euskalerrriak, bere bizi luzean erri-lez jaio zanetik gaur arte, beti! askatasuna edo erri-agintea (democracia) gogoan euki dau elburu-lez, bere berezitasunak alan beartu ebalako leenengo elkartea sortu zanetik. Orregaitik daki ainbeste askatasunaren gora-beran, eta orregaitik bere indar guztiaz eutsi gura dautso bere sinismenari. Au da ziurtatzen dauana, gure jakintsu artean sortu diran zalantzak agertzeko: Euskalerrian, zazpi lurraldean izkuntza Euskara ba-da, lurralde bako-

## EUSKALDUNAK

tzaren Euskara izkuntza berezi-bat dala, ez dirala euskalkiak, eta baliteke arrazoa izatea, Euskalerrria berezitasunezko elkargo edo antolamendutik (pacto) sortu zala. Orregaitik gaur egunean eutsi egiten dautso leenengo sinismenari, JAINKOA ren LEGEAK bultzatu egiten gaitualako. Elburu lez? Dana dala, orren bidea daroagu arrazoiaren bidez, ez! indarkerien bidez.

Beste gauza-bat dira, zortzireun urteko erri gazte auek (nai asmakizuna Godoakandik etorri arren), Espainaren antzera, ezer'etik erri aundiak izan gura dabenak, sasi-jainko edo kaizar-zale izanda aginduan, beste erri bereziak diran'en eriotzagaz. Eta orretarako ez dago beste biderik euren elburuak lortzeko, aurrera egitea, jaio ziran egitamu-saio'rekin: lapurketa, erio-tzea, guzurra, eta abar. Au-da, JAINKOA k ipini gaitun LEGE BEREZIEN aurkako eritziek.

Olan jaio ziren, eta olan irauin egiten dabe gaur egunean. Euskalerrriko seme/alabak, iñundik iñora ez dira jauzi bear curen jokoan, guzurra eta amarrukerian, orko bidetik eurok maisuak diralako, eta joku ori bear dabelako, berezitasunezko arrazoa zalantzan ezartze-ko, bitartean, indarrarekin al ba dira irabazteko.

Gaiñera jakinda, Ludi onen mailla aundiko ulermenean, baietza emon dautzoela ERRI-AGINTEARI.

Biotzeko min aundia emoten dabe, daukaguzan gazte espetxeratuak, eta alegindu bear gara, dagozan lekuetatik etxera ekarteko len bait-len. Baiña ziur, gure gaur eguneko alegiñak, ez dirala eriotzak, guzurrak eta abar, euren jokoa dalako. Eta ortik, neurtuak izaten garalako; bai! curen indarra aundiagoa dalako.

Cure borroka, giza-barrena osatuaz da SABINOK esaten euskun-lez, arrazoiak jokatu bear dalako gaur, EUSKAL NORTASUNA ikusi dagien beste erri guztiak.

Eta ziur esango dabela OR!! EUSKALERRIA.

Arrazoa gudan dago, eta zintzo jokatzen ba-dogu, benetan irabazita daukagu.

Gora euskalerrria! !

ATUTXA'tar Paul

Zornotzan 2.000' ko apirillan 22'an

## SALABERRI ERTILARI

Zatoz argia nire itzera  
jaun aundia aitatzeko  
Aramaixoko lora ederrak  
lurra argitzen dabelako,  
Euskalerrriko lurralde ederra  
egiz da zorioneko  
mendi ta zelai guztiz da bikain  
eguzkiaren begiko.

Edu ortako bazter zorian  
agertzen dira loreak  
batzuk zuriak usain gozoaz  
gorriak ban-iz besteak,  
danen artean baratz aundia  
osotzen dabe maiteak  
zoragarritzko ikuspegia  
aidetuz gero erleak.

Ararnaiona, Aramaiona!  
zentzundun giza abia  
zerutik dator goi eskar ona  
ta biotzen maitasuna,  
izarrak izar goratzen dabe  
gizadiaren almena  
baserri eder zoragarriei  
opalduz argitasuna.

Ez naz arritzen, poztu eiten naz  
ainbeste toreen artean  
giza seme bat agertuagaz  
Aramioko etxean,  
danak barreka maitasun pozez  
izartxoaren aurrean  
a zan bai poza egiazkoa  
Salaberritarrencan.

Geroztik beti gurentzen joian  
giza lorea zelaian  
ertilaria gora ta gora  
Aramaioko etxian,  
txoriak kanta, zugatzak adi  
eguzkiaren azpian  
aurrera, beti, urretzen doa  
ertilaria bidian.

Gaialagunean gorengo  
agertzen da soiñulari  
maisuen maisu eginda dago  
abesbatzen zuzendari,  
Aramaiotar aundia zara  
Euskalerrriko agiri  
gora ta gora ots dagoigun  
gizon ertilariari.

PAULIN

## BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ



# ¡BERDINTASUNA! ¡BAIKOTZENTZAT BAIKOTZENA!



Gabe baten, bi sagutxu, curen "lenengo bearrian", ebilli ta ebilli, batetik bestera, zulo batetik eldu zian "GAZTAI ONENA" izeneko tendera. Ta an barruan ikusi ebeñ, mai gañean, gaztaiak. Biok oratu ebeñ gaztai bat ta joanzian etorrizianetik, guztiz pozik.

Baña biok batera, sagutxoak oldostuebeñ, onena izango zala bixontzat, erdubituta gaztai a, izan eixen baikotzentzat baikotzena, benetako erdibitutasunean, berdintasun berberena. Alabe, orrelan errezagoa izangozala –gaztaia erdibituta– baikotzak berena eruatia.

Baña orretan euzenian sagu biok mintzatuten, orretan eusela burukomiñ aundiena emuten autzana biori: Zelan erdibitu gazta a izan ediñ, zati baikotzak berdinderdiñak? Oldoztasun onegaz eusein guztiz neasketatuta. Zelan erabagi alako ebaizkizun aundea?

Orretan euzenian, entzunebeñ, cuela an, aldian, TXIMIÑO "jakintsuen artean jakintsuena", erabagiten ebenak ebaizkizun nekezenak ta aundienak.

Entzun ebeñaz, joan zian sagutxoak gaztaiaz zuzen TXIMIÑOren etxera.

Zartu zianian saguak curen gaztaiaz TXIMIÑO-ren etxean, onek ikuzi alaz gaztai aundi a, jaiki zan, ta bezoaikiñ jazota, poztasunez beteta, ezan eutzan saguairi: "Ongi etorriak, nere lagun onenetakoak". ¿Zer nai dozue neretik? Ni gertu nago, nai dozentarako. Baña, ekiteko, onena izango d ipitia gaztai eder ori emen, mai gañean. (Ta orrelan egiñebeiñ sagutzuak). Baita be TXIMIÑO "jakintzuak" ezan eben: "Nere lagun maiteak: Jazarri ondo aulkian, obeto egoteko.

"Gertu nago entsunteko nai dozuena, nere lagun onenetakoak."

Sagutxoak ezan eutzain, zela ta zelakoa zan curen ebaizkizuna. Nai ebella erdibitu gaztai a, bi zatitan, "berdiñ-berdiñean", izan eizen "baikotzentzat baikotzena". Baña biok ikusten ebella, zelako nekeza izango zan orrelako erdibitutasuna, izen eizen zati biak berdiñ-berdiñak.

Obeto baño obeto entzunda, TXIMIÑO arek "beren lagun" on arek nai ebena, erantzun eben: "Bai, argi ta garbi ikusten dot zuek naidozuena: Izan edilla: "BAIKOTZENTZAT BAIKOTZENA" Ori da egi-egiazko BARDINTASUNA. Ta orregaz ezaten dozue dakozuela ZUZENTASUN egarri aundia. Ta alako egarri aundia dagonian, emen eukiko dozue iturri onena".

Erabagiteko orrelako ebaizkizun aundia, nago ni beti gertu.

Orretan euzenian, ezan eutzan zagutxu batek beztiari: Orain ikuziko doguna ben-benetan IKUSIKOGARRIA izango da.

Orregaitik euseñ gertu, begiaikiñ ondo ereita zagutxu biak.

Erabagiteko orrelako ebaizkizun aundia, ezan eben berriz TXIMIÑO "jakintzuak" ni nago beti gertu. "Orretarako-jarraitu eben TXIMIÑO arek-emen dakot biar dan onena. Ta etaraeben maipetik ganibet aundi ta zorrotz bat, ezan alaz: "Onegaz erdibituko dot gaztaia, bi zatietan". Alabe etara euen maipetik, txonpela, ezan alaz, txonpela da, ezagututeko, neurriteko zati baikotza, ikusteko zer bardin dan, gastaia ebai ta gero zati biak, eltzeko bardin-bardintasuna. Ta ori da egingotena, zuen begien aurrian".

Sagutxu biak euzeñ entzuten TXIMIÑO "jakintzuak" ezaten ebena, begiaikiñ ondo ereita, gertu ikusteko zelan erabagikozan curen ebaizkizun aundia.

TXIMIÑO-ak Jazo eben bezoa gaipeteaz ta ebai eben gaztaia bi zatitan. Gero zati baikotza ipiñi eben txonpelan. Baña alde bateko zatia zelan zan beste zatea baño aunditxuagoa, bardinduteko bi zatiak, TXIMIÑO-ak ainkatxu bategaz zati aundienari, egiñ eben alegiña berdinduteko zati biak (danori, sagutxoak ikusten zelan egiten zan bardintasuna). TXIMIÑO arek, ordu-laurenian AMAITU eben beren "biar nekeza".

## KONTU-KONTARI

Orretan, sagutxuak itaundi ebeñ: "Ta gaztaia Nun dago?"

Ta TXIMIÑO "jakintzuak" erantzun eben:

–Zer gaztai? Nere lagun onak ¿Ez dozue ikuzi zeuen begiaikiñ zelan egin dan erdibitasuna? Gaztaiak ez dako garrantzirik! Garrantzia dago, ikuzi dozuen ERDIBITASUNIAN, eltzeko BARDINTASUNA, onek dakolako GARRANTZI aundiena. Ikuzi dozue-nez, gaztai bat ez da ezer. "Dan dana da: "BARDINTASUNA" izan edin "BAIKOTZARI BAIKOTZENA".

Sagutxuak nastagarrituta, entzun ebenaz, ezan ebein:

—Baña gure gaztaia Nun dago?

Ta TXIMIÑO-ren erantzuna zan: "GAZTAIA? EZ DOZUE IKUSI ZELAN ERDIBITU DAN? i-ERDIKITUTA DAGO GASTAIA! Ta onelan eldudozue biok "BARDINTASUNA", ta ortik ikusten da argi ta garbi eldu dozuela "BAIKOTZENTZAT BAIKOTZENA".

Sagutxuak, orretan, ikuzi ta entzun ebeñaz, erdi edo guttiz zorotua, makurtu ebeñ buruak, ta joanziak euren etxera.

Eldu zianian euren etxera, goizia zan. Euren aitamak euzein larrituta zagutxuak ez zian agertuten zialako. Baña aitamak uzainduebein gaztai uzaña zagutxuen artian, ta itaundi eutzain: "Ezan egia! Nun jan dozue gaztaia? Zuek gaztai uzañez zagoze! Emen ez dea ezaten gezurrik!

Sagutxuak, bildurrez beteta, erantzun ebeñ: Guk ez dogu jan gaztaia. Guk eukidogu, ondo irabazita, gaztai aundi bat... Ta jarraituzian ezaten egi-egia, gaztaien TXIMIÑO "jakintzuaen" "negar-garri" edesti luzca. Sagutxuen aitamak entzunebeñaz ezin ebein ziñistu euenenik lurrean lapur alakorik. Ta egunaz saguak (beintzat areik) lo egiten dabeinez, jare eueñ danori alde batera, ta lotara joanzian, baikotza beren lekura. Etorren gabea, entzunebenetik, joango zin danok "GAZTAI ONENA" tendera, gaztai gozoen billa.

Onain arte saguen lenengo edesti zatia.

Baña ikusi eigan "GAZTAI ONENA" –tako saltzaillearen edestia, orren ondoren. Zaltzailleak ikuzi ebenian, baten batek gaztai bat orostu ebela, ezaten zebein: Zein izan lezke oroztu ebenak nere gastaia? Atiak itxita euzein. Ipiñi zan begiratuaten alde guztietan, eta atzenian ikusi eben euela, an, zulo bat, ta ez zulo txikiña. Zulo aretatik baten batek eruan eben gaztaia. Baña ondo oldoztuta (ezan eben berentzat), batek bakarrik ezin dau eruan gaztaia, bat baño geiago izan dia. Orretarako badakit zer egiñ bierdoten. Ta orrelan gertatueben uztenebena izango zala onena etorren gaberako.

Ta eldu zan GABEA saltzallea itaiten eben gabea:

Sagu aitamak ta seme biak, gaberdiñ joan zian "-GAZTAI ONENA" tendera, bata bestien atzean; danok zartuzian zulo baten, ta andik aurrera jarraitu ebein bidia gaztai gozuen billa: elduzian nai ebeñ lekura. Leku aretatik zer ikuzi-ebeñ? LAU GASTAI-ZATI! Ikusten ebeñaz poztu zian danok...

Bañe ona izango da jakitia orduan euela ezkututa erakusmai ostean saltzallea makilla bate gaz eskuan itaiten...

Orrelan euzenian dan areik, sagu nagusienak, ezan eben: Danok egiñ bierdogu biar au batera: Aurrera! Ta orrelan izan zan!

Laurak batera joan zian artzera, baikotzak beren gastai-zatea. Baña baikotzak oratu ebenian gaztai-zati gozoa, entzun zan arrapalluen zaratak. Orretan, urten eben zaltzallean beren lekutik ikustera berak gertatu eben lekura, ta an dagozen LAU SAGUAK: Ilda danak. Ikuzi alaz an lurrian euena, ezan eben: Baikotzak baikotzena billatu dau ta arkitu dau!

ONTZATEGITXU

Lima. Perú

Ipuin au dago idaztita BIZKAI'ko antxiñako euzkeraan.



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE



## ZIORTZA (I)

Bizkaia'n lekaide-etxe bat daukagu eta Lekaide-etxe orretan geure-geureak doguzan lekaideak, Elgezabal'dar Patxi arduradun dala eta Aranguren'dar Iñaki Totorika eta beste batzuk lekaide alkarte osotzen dabela.

Bizkaitarrok maite doguz lekaide-etxe au eta bertan daukaguzan lekaideak.

Lekaide-etxeak argitasun aundia izan dira Europa osoaren edestian eta ba-daukagu itxaropena gure erriaren edestian be zeregin aundia beteko dauala Ziortza'k.

Gure aldizkari onen orrietan amar bat idaz-lan atera nai neukez lekaide-etxe oneri buruz. Gai guztiak ezin azaldu nai izango dodaz, baiña jakin al izan dodazanak agertuko dira.

Izango dira ogeta amar bat urte lenengoz toki aretara joan nintzala eta orduan barru-min aundia sortu zan nire barruan: Ain gauza ederrak ikusten nebazan an eta ain bertan-bera itzita! Askok poztu nintzan ba eleizbarrutiak eta Aldundiak alkar-lanean monastegi eder ori barrizatzeke erabagia artu ebenean.

Bigarren poz-aldia Lekaideak datozela eta nortzuk datozen entzun nebanean artu neban.

Aurretiaz sarritan izan nintzan Napparroa'ko Oliba lekaide-etxean eta bertan ikusten neban Patxi adiskidea: Batera egon giñan Gasteiz'ko Abade-Ikastegian, gero parrokian eta Los Rios'ko misañoi-lanean ezagutu gendun. Urrengo, lekaidetza artu ebala entzun gendun. Barri pozgarriak ziran! Baiña pozik aundiena izan zan Patxi eta bere lagunak Ziortza'ko Etxe eder onetan alkarte bat sortzen ebala entzun genduanean.

Lan aundia egin dabe eta egiten diardue Patxi'k eta beronen lankideak etxe onetan eta uretik jarraitzen doguz curen lanak. Nozbeinka joaten gara bertara eurakaz alkar-izketa gozoak izatera.

Zer aztertuko dogun idaz-lan oneitan?

Etxea ta inguruko tokiak, eleizea eta ingurua, lekaideen bizi-erea, lekaide barrien itxaropena, eta abar.

Al dogun neurrian irudi batzukaz apaiduko doguz idaz lanak.

### IZENA

Askok izan dira Zenarruza edo Ziortza izenak zer esan nai dauan adierazo nai izan dabenak, baiña oraindiño arazoa ez da argitu.

Idazki zarretan izena gaur esaten dan antzera agertzen da, aldakuntza batzuk dituala: Cenarruça, Zenarruza, Cenahurriça (au 1400n. urtean) Cenaurriça (au sarritan XVI gizaldian), Ceaurica (au etxearen ate-gaiñean) baiña XI, XIV, XV eta XVI gizaldietan gaur erabilten danaren antzeko izenak be agertzen dira. Gaur inguru aretan Zearrotza esaten dautsoe. Batzuk ba-diño zearro landara bat dala eta Zearrotza landari ori ugari dagoan tokia.

Kerexeta'k diñoanez, izen orrek ba-dauka zer-ikusia Cenarro eta Ecenarro'gaz. Enar ori otea edo olako landararen bat dala diño Mitxelena'k.

1909'an argitaratu zan Bizkai'ko Oroitetxeen Bazkunak argitaratzen eban aldizkarian Cen-arru-tza dala

jatorra esan eben eta adierazpena mendi-bitarte asko dagon lekua.

Azkenengo azalpen au atsegin jat, baiña nik be neurea agertuko dot: Zean aldapa dala uste dot. Esaterako, Zean-uri aldapan dagon ur-aldea, erderazko "cuenca" edo urak doazen bidea edo arloa. Arroa (Gipuzkoa'n Arrona) mendi txikia da. Tza atzizkiak ugaritasuna adierazten dau. Orrelan Zenarrutza auxe litzake: aldapan eta muño askoren artean dagoan tokia.

### TOKIA

Ziortza Bizkai guztian dan tokirik ederrenetariko bat da. Lekaideak bakartadearen billa jotzen eben olako tokietara eta orrexegaitik gaur olakoa etxeak geienak tokirik ederrenetan dagoz.

Erdi-aroa ezker, Bizkai'ko toki eder onetan daukagu lekaide-etxe au eta erderaz "Colegiata" izena emon jako.

Izen onek gotzaiñik ez daukan eta abat baten ardurapean dagoan etxea esan nai dau. Etxe orretan kalonjeak edo kanoniguak dagoz, berez lekide ez diranak, baiña gotzain-eleizetan egiten diran antzeko eleizkizunak egiten dabezanak.

Bolibar'etik urrean dago toki au, Oiz mendiaren barrenetan eta Markiña'tik ez urrin.

Toki bereizi bat izan arren, lekaide-etxe onek lur-zati aundiak euki ebazan inguruetan.

### NOIZKOA

Amargarren gizaldi inguruan sortu zan etxe au. 968n. urtean egindakoa zala eleizea diño. Eta asiera onetan, sarritan jazoten dan lez, kondaira edo leienda bat agertzen da: Urte orretan Andra Maria'ren Jasokunde egunean, Garai'ko Santa Lutzi'n (Gerrikaitz'en) eleiztarrak mezatan egozala arrano batek ango buru-azur bat artu eta ona ekarri ei eban eta emen jausten itzi. Alatz lez artu eben jazokizun ori eta buru-azurra egoan tokian eleizea egin eta inguruan lurperatu Santa Lutzi'tik ekarrita an egozan gorpuzkiñak. Ori baseleiza bat izango zan, ez besterik.

Arrano orren irudia agertzen da ainbat tokitan eta Ziortza'ko erriaren ikurrean.

Agiri baten lenengoz 1.082n. urtean agertzen da: Donemiliane'ko narrukian: Lope Iñigez'ek eta onen emazteak Muxika'ko Bingen Deunaren Eleizea emoten dautsoe Ziortzako Monastgiari Blasko Abatak izenpetzen dau agiria 1.379n. urtean Markina'ko Pedro abatak. au izan lenengo abata, aurreko abatak laikoak izan ziran au eleiz-gizona.

OLAZAR'tar Martin'ek

**Oarra:** Jakingarri asko Bizkai'ko Aureski-Kutxaren "Ternas vizcainos" aldizkaritik artuak dira.

# EUSKALERRIA: LURRA, JABETZA, ETORKIAK, IZKUNTZA

Gure Erria erri zarra dogu eta edestiak zer-pentsau asko emoten dausku. Urteak oar-ikasia, esperientzia, emoten dabe eta gure oar-ikasia aundia, zabala ta sakona da. Baiña ez aitzu: Kezkagarria be ba-da. Goazen oar-ikasi au aztertzer, arlo batzutan beintzat.

## LURRA

Lurraren jabe izatea pozbide aundia da munduko edozein errirentzat. Begiratu, esaterako, zelako burrukak eta gudak eta alkar-izketak Juda'tarren eta Palestindarren artean lurraren jabe izateko bideetan.

Gure erriak beti izan dau bere lurralde, iñori kendu barik, baiña zori txarrez gure lurra geroago eta murriztuagoa da: Antxiña Bordele'ra arte eltzen zan eta gaur ez daukaguz Laburdi ta Zuberoa baiño, bitartean Baso-Nabarra dala. Akitania osoa, Bearne, Gazkuña ta abar kendu dauskuez.

Len Lur-arte edo Mediterran-itxasora arte eltzen gintzazan eta Auñamendi'ren alde biak gaur euskerazko toki-izenez beterik dagoz, baiña kendu euskuezan Oska, Jaka. Logroño eta beste errialde batzuk. Gogoratu lenengo esaldi idatziak Donemiliane'n.

Burgos'ko iparralde guztian, asi Kantabria'ko Laredo'n eta Miranda'ra arte euskeraz egiten zan eta gaztelera ez da besterik euskaldunak egiten eben latiña baiño. Autrigoiak, leiñu euskalduna, ziran or bizi ziranak. Ori be kendu euskuen. Karrantza eta Enkarteritik Ugao edo Miraballes'era geratu jaku autrigoiien lurralde.

Eta eraso au aurrera doa. Arin joan be. España'tarrak ez dabe ontzat artzen Iparralde Euskalerria danik. Naparren artean askok diño eura ez dirala Euskalerria. Araban be UA alderdiak araba ez dala Euskalerria esaten dau. Orrelan Bizkaia ta Gipuzkoa baiño ez litzakiguz geratuko.

Orra or erri-iltzailleak, "genozida" k urteen joanean egiten diarduen lana!

Baiña gure lurra or dago: "Zazpiak bat". Eta arrarik arra (palmo a palmo) zainduko dogu gure lurra.

## JABETZA

Goazen beste ikuspegi bat aztertzer, Buru-Jabetzaren ikuspegia.

Gure erria antxiñatik eta beti izan da bere buruaren jabe. Beti izan da Euskalerria. Baiña jabetza onek oiñarrian izan dau indarra, sendian, auzoan, baserrian. Ez dau sekula izan aginpide giroko batasunik: Laburdi'koak curen batzarra Uztaiz'en, Zuberotarrak euren Maule'n, Naparrak curen korteak, Gipuzkoak erri ezbaridinetan batzen ziran batzarretarako, Arabarra'k Arriaga'ko kofradia Lakua'n eta Bizkaia'tarrak Gernika'n. Eta batzar orreitan curen legeak eginda, bakean bizi ziran euskaldun guztiak. Ez euren goragoko mailako jaurlaritarik eta ortik etorri da galbidea. Gure alkartasuna erri-aurreko agintaritzak bakarrean agertu bear zan baiña lar errizaleak, demokratek izateak galitzen gaitu.

Gure batzarretan egoan Jabetza ori kentzen beti alegindu dira eraso egin dauskuen erri-iltzaille edo "jenozida" k. Ona emen craso batzuk: Ezkontzak egin batzarretako buruen eta Gaztela edo Paris'ko agintarien anean eta ortik batasun bat, naizta erri-legeak edo foruak zaindu asieran. Gernika'ko batzarretara be sartu eban muzturra ezkontza-bidez jauna zan erregeak eta batzarretako buru bere agintaririkidea eta korrexidorea ipinten eban: Beti euskalduna ez dana. Onk batzarretara sartzeko baldintza lez gaztelerea jakitea ipiñi eban eta orra or euskaldunak erdera ez dakielako, batzarretik kanpoan. Non dago buru-jabetza? Eta ori "pase foral" zalakoaren arazoak alde batera itzita.

Gizaldietan ekin dabe gure erritarrak Gaztelako edo España'ko erregeari ondo esan eziñik erantzunak "Gatzaren matxinada" koa lakoak.

Gero Karlatarren gudak eta, Bergara'ko besarkadearen ondoren, foruak kentzeak arik eta Kadiz'eko Korteetan gure eskualdeak "España ren probintzi" biurtu arte. Eta buru-jabetza? Batzarrak jarraitzen dabe eta ekonomi-ituna be bizirik dago.

Euskalerraren erantzuna laster etorri zan gizon goragarri baten aoz: Arana ta Goiri'tar Sabin zan au. Onk berbiztu eban Euskalerria, baiña lenengo bere burua euskaldundu bear izan eban, foruen bidea alde batera itzi eta "aberria"ren bidea artzeko. Zelako urte pozgarriak jabetzarako bidean 1930'etik 1935'era-koak! Zelako poza Lizarra'ko Araudia erriak onartu chancan! Ez zan burujabetza osoa, baiña, galdua galdu-ta, aurrerapen aundia bai. Madrid'eko korteetan ez eben onartu au. Betikoa! Irakurri begie lan onen irakurleak Agirre'tar Jose Antonio'ren "Entre la libertad y la revolución" liburua.

Araudi bat 36'an izan zan onartua, baiña erdi-alpe-ririk: Guda etorri eta egindako lan guztia zapuztuta geratu zan urteetarako. Ez zan galdu dana, erriak lortu eban bizitasuna biotzetan geratu zan, baiña zelako samiña gudearena eta onen ondorenak ekarri ebena! Berrogei urte orreik izan dira jabetza-arloan izan doguzan urterik txarrenak.

Baiña igaro zan ekaitz-aldi samin ori be. II zan diktadorea eta agintaritzaren barria sortu be bai. Erregearen buru zala. Erregeak ez dautso ikuturik egin jabetzaren arazo oneri eta Araudi barriari bideak zabalik itzi dautsoz. Orain alderdi politikuen arazoa daukagu: JEL, EA eta EH alde batetik baiña irurak ondo alkartzen ez ba'dira, or daukaguz alboan PP ta PSOE. Lendakari barri bat nai leuke eta izan daitela PP'koa. Jazo leitekengauzea da Alderdi Abertzaleak alkartzen ez ba'dira eta izukeriaren bidea alde batera itzi eta alkar-izketabidean Euskalerrria bere senera jasoten ez ba'dabe.

Eta txarrenean be zer? Lendakaria abertzale ez dana izan arren be, lau urterako litzake eta bear ba'da lau urte orreitan euskaldunak zurtu egingo litzakez agintarien jokabide okerra ikusita. Orra or nora eldu garan! Araba'n eta Nafarroa'n abertzale ez diranak agitzen dabe. Iparraldean ezin dabe lortu iru lurraldeak "departamentu" bat izatea...!

### ETORKIAK

Euskalerrria ren nortasuna galazoteko inguruko erasoak artu daben bidea beti izan dira etorkiak. Erromatarren aldiaren emen ibiltzen ziran kanpotarrak, batez be Nafarroa ta Araba'ko lurralde lauetan eta euskerea galtzeko ordutik asita lan aundia egin eben. Gero, batez be lugintzak indarra galdu eta langintzak edo industriak indarra artu ebanean, gure erritxu euskaldunak be etorkiz bete jakuzan. Eta erri txikiak baiña be geiago lan-tegi geiago egoan lurraldean: Barakaldo, Sestao, Portugalete. Geroago Gipuzkoa'ko errietan, oraintsu Araba'n Oneitariko asko bertokotu egin dira eta euskaldun sutsuak dira, baiña beste askok onartu dauzan erria ez dabe maite. Ortik dator geien Abertzaleak ez diran alderdien indarra eta demokrazi barriaren arriskua dira, gure erriak bere nortasuna galtzeko bidea.

### IZKUNTZA

Lurraren jabetasuna aztertu dogunean agertu da izkuntzaren arazoa be, edestian beintzat.

Baiña gure izkuntzak gaur dituan arazoak aundiak dira:

Gure artean etorkiak sartu dira eta ain ondo aziak garalako, gure taldean erdeldun bat dagonean erdera egiten dogu.

Gure etxeetara telebistaren bidez erderearen be sartzen da eta len etxea izan zan euskerearen santutegia.

Gure izparringiak eta liburuak asko erderaz datoz.

Euskeraz datozen aldizkariak, alboan erderearen ba'dauke, erderearen irakurri bear izaten da, sartu dautsuen euskera batu ori ulertzeko gatxa dalako.

Gure erri euskaldunen kaleetan erdera asko entzuten da, ez ainbeste euskerea, erdeldun asko dagoalako gure artean. Orrelan, apurka, euskerea itzi eta erderearen geuretzat artzen goaz.

Egia da ETB'k euskeraz egiten daukala ikastegietan geienak euskerea ikasten dabela eta geienak baita dana euskeraz ikasi be. Ikastetxe Nagusietara be geroago ta geiago sartzen doa euskerea, alfabetatze ekiñaldi asko eta onak egiten dira...

Ba-dago ba or alde bietako indarra! Adibide lez eta esandakoa ziurtatzeko, ona emen neure bizitzan, eta beste askorenean, zer egin daben erri-iltzailleak curen elburua lortzeko: Sendi euskaldun baten jaioa nintzan eta gurasoak naiz anaiak ez ekien erderarik. Sei urtekoa nintzala eskolara joan nintzan eta berba bat be ez neban entzun euskeraz iñoz. Gero erdi maillako ikasketan bardin, erdera uts-utsa eta Euskalerrriaren edestia, lutelestia edo edertia aitatu be egin barik. Dana España'ren ikuspegitik. Gero geure buruen jabe bihurtu giñanean gure nagusiak beti erderearen ezarten euskuen, burruka sendo bat egin arte beintzat... Bide orreikaz gure euskaltasuna kendu gura eben. Zergaitik? Nongo eskubidez? Erri-ilketarako alegiñak or agertzen dina, baiña ez dabe lortu. Ez da erreza erria iltea eta Euskalerrriak bizi-gura bereizi bat daukala ezin ukatu. Noiz arte bizi izango da erri au? Mezedez! Ez zaitezte izan erri-iltzaille!

### ITXAROPENIK?

Gure urte oneitan ba, arlo guztietan gagoz burruka bizi batera sartuta: Zazpi lurraldeak zaintzeko, Buru-Jabetza goragoko maillara jazoteko, etorkiak bertokotuteko, izkuntza alde guztietara sartzeko... Baiña inguruko indarrak aundiak diralako eta indar orreik barrurara sartu jakuzalako, gure itxaropena labur geratzen da. Jarraitu daigun gure ekintzan zintzo ta sendo. Eta etorkiai berbatxu bat: Gure artean onartuak zaree eta zuek be gure erria onartu egizue.

OLAZAR'tar Martin'ek

---

# EUSKALERRIA EDESTI GIOIA (IX)

---

## LEÑU-ARTEKO GERRA

---

### **FELIPE V ETA NAPARROA'KO VII. 1700-1746**

Carlos Bigarrena il danean, bere ondorengo Felipe de Anchou, Luis XIV eta bere emazte, Carlos'en arreba, Maria Teresa-ren biloba (nieto) izendatzen dute.

Felipe onek, Carlos'en Austria-etxea artzen du ondoren bezela; baña, Carlos'en ama Maria de Austria'k ez du onartzen ori eta Etxe arrek Artxiduke Carlos'en eskubideak ipintzen ditu maigañean. Eta, besterik gabe, Viena' n koroatzen dute Espaiña'ko errege, Carlos III izenarekin. Orra bi errege aulki bakar batentzako.

Luis XIV'garrenak Felipe'ren alde jokutzen du: Espaiña eta Frantzia alkarrekin eta euren aurrean talde aundi bat (Dinamarca, Austria, Ingalaterra, Holanda, Alemania, Portugal eta Suezia).

Utrech'eko Itunakin amaitzen da burruka, 1713. Itun orrek bialtzen ditu ego-aldeko arrantzale euskaldunak Terranova eta Canada'ko itxasoetatik betirako.

España'n, Valencia eta Aragoi Carlos III'garrenaren alde agertu ziran; Naparroa, berriz, napar odola zeraman Felipe'rekin bat... 1706'ean Naparroa'ko errege izendatu zuten eta berak Naparren Fueroa eta Askatasunak berriztatu.

1718'ko abenduan, Felipe'k Frantzia'ri (eta bere lagun ziren Ingalaterra, Austria, Holanda'ri) gerra egin zien... Naparroa'k Felipe'ri eutsi zion eta aren maitasuna jaso zuen sari: Naparroa'ko Gobernadorea bera izango da Errege-ordeko; Korteak eta Diputazioa, Konseillua, Cámara de Comptos eta diru naparra... guztiak gordeko ditu bizirik. Gañera soldadu naparra gerratean bakarrik izango da deitua eta ori napar lurra defenditzeko bakar-bakarrik. Funzionari denak jaiotzez nappararak izan bearko dute... 1712'an Frantzia'ko mugara aldatu ziran aduanak, Ebro'ra itzuliko dituzte amar urte ondoren, 1722'an...

Eta Felipe berak sortzen du zorioneko "Ley Sálica". Lege onek aldamereratzten ditu emakumeak errege-aulkitik eta urte batzuen buruan, lege onek sortaraziko du Lenengo Karlistada.

1746'ko ekainaren 4'ean ilko da, erregetza bere semeari utzi ondoren.

### **FERNANDO VI ETA NAPARROA'KO II. 1746-1759**

Urte berean izendatzen dute Naparroa'ko errege eta 1757'an etorri zan Fueroen gañean ziñ egitera. Il aurretik, Napoles'en errege dagoen bere ugaz anai Carlos III aukeratzen du errege berritzat.

### **CARLOS III ETA NAPARROA'KO VI. 1759-1788**

43 urte zituela iritxi zan Espaiña'ko errege izatera. Artea eta Jakintza babestu zituen eta bere garaian sortzen dira "Los Amigos del País" zeritzen taldeak: Zurich'en 1741; Paris'en 1761; Azkoitia'n 1764; Madrid'en 1775. Erregearen laguntza osoa dute. "Pragmática Sanción" legearen bitartez adierazten du ofizio eta lan-bide guztiak dirala nobliak eta edozeñek egitekoak; baita aundikiak ere. Bergara'ko Seminarioa sortu zuen era bertan aurkitu zuten Wolframio meatz berria. San Ignazio'ren semeak Espaiña'tik kanpora bota zituen eta elizetan ildakoak eortzea debekatu, illeriak errietatik milla metrora boteaz. Madrid'en il zan 72 urte zituela, Abendua'ren 14'ean, urtea 1788, Frantzia'ko Iraultza Nagusia irten baño sei urte aurretik. Semeak jarraituko dio erregetzan.

### **CARLOS IV ETA NAPARROA'KO VII. 1789-1808**

Urrengo urtean, 1809. Naparroa'ko errege izendatzen dute eta sei urte beranduago etorriko da Fueroen ziña egitera. Frantzia'ko Iraultza sortzean bere senitarteko Luis XVI salbatu nai izan zuen eta, eziñean, gerra egin zio Iraultzaren Lege-biltzarari. Gerrak bi urte iraun zuen: 1793-1795.

Napoleon'ek itun bat izenpetu bear zuen eta aitzaki orrekin, Ingalaterra'ko gerra-ontziak etorria ziran onuntz, eta Trafalgar'eko burruka artan Ingeles'en Nelson buruzagia erail zuten; baita Gravina eta Txurruka motrikoarra; biak ospetsuak.

1794'ean Frantzia'ko Gudari Errepublikanoek, Bidasoa ibaia igaro, eta Donosti, Bilbo eta Gazteiz artu zituzten mendean... Urte bete beranduago, 1795, Urtarrillaren 22' an, Godoy Lendakariak

(errege Carlos'ek bere esku utzita zuen erregetza) Basilea'ko Pakea izenpetzen du... Euskaldun guziek pozik artu zuten pake ori; naparrak bereiziki frantzes erregeekin zuten senitartekotasunagaitik.

Irun eta Ondarrabia, Naparro'rako.

Gipuzkoarrek Naparroa'tik 1200'ean alde egin zutenetik, naparrek itxasorako biderik gabe gelditu ziran eta Basilea'ko Pake onek eman zion aukera Erregeari au eskatzeko: eman ziela Pasaia ala Ondarrabia itxaso-bide... Ortan ari dirala, sartu ziran berriro soldadu frantzesek eta ankaiz gora gelditu zan eskeintza ori gerra amaitu arteko guztian.

Gipuzkoa ez zan pakean gelditu... Eta, orrela 1814'ean, Dagonillak 18, itzuli ziran bi erri oiek, Irun eta Ondarrabi, Gipuzkoa'ra. Bederatzi urtez naparrek izan ziran nagusi bi uri gipuzkoar oietan.

### **FRANTZES ERASO-ALDIA ETA ERREGETZA UTZI-BEARRA**

Español eta frantzesek (Napoleon'ek) Portugal mendean artzea erabaki dute. Aitzaki orrekin, Napoleon'ek eun millako gudarostea sartu du eta Espaiña'ko uri arresietan zabaldu.

Gauzak orrela daudela, Carlos IV'garrena bearzen dute erregetza bere seme Fernando'ri uzteko, 1818-IV-6'ean. Biai ots egin zioten Baiona'tik ara joateko eta bertan beartzen dituzte curen erregetza Jose Bonaparte'ren eskuetan uztera. Jose Napoleon'en anaia zan.

Urte orren Maiatzaren 2'an, iraultza militar bat sortzen da Frantzia'ren aurka eta Aoiz eta Velarde, artilleriako bi kapitanak erailtzen dituzte; Mosteles'ko Alkateak, berriz, deia egiten du gerrarako...

Naparrek Jose Bonaparte errege onartu bearke zuten; ordez, bere aurka jeikitzen dira 1808'an, Apirillak 7. Egun gutxi aurretik, Urrillak 26, Fernando aukeratu zuten errege Tudela'n.

Gerra erri-alde guztietara zabaldu zan, Ingalaterra eta Portugal tarteko zirela. "Juntas de Salvación" sortu ziran baztarretan. Gerratean erlijioak ere bazuen parte Iraultzailleen jarreraren aurka...

Naparroa'n, Mina izeneko estudiante batek taldeak biltzen ditu bere inguruan gerrarako, baita irabazi ere ekintza batzuetan; baña, bera il zuten. Orduan, Espoz y Mina, baserritar bere osaba egin zan sakabanatuta zeuden talde oien kargu eta 10.000 lagun bildu zituan bere mende, Naparroa'ko Divisioa sortu zuen.

Napoleon'ek berberak eman zuen ordena, Espoz y Mina erailtzeko; baña, ezin zan zuen bete. Bien bitartean, berak, Iruña inguratu zuen frantzesak barruan zirela.

### **CADIZ'EKO KOSTITUZIOA**

Wellington Jeneralak español, ingeles eta portuges gudariekin, Jose Bonaparte garaitu zuen leku askotan (Talavera, Arapiles, Vitoria, Irun'go San Marzial) eta bere errira bota. Aren ondore doala Naparroa'n sartu zan eta Espoz y Mina bere mendera jarri zan...

Neke asko pasata, azkenik, euskaldunak libre ziran.

Baztar guztietan sortu ziran askatasunerako taldeak desegin zitun Junta Central batek eta bera gelditu zan danen ordez. Napoleon berriro agertu zanean, ies egin zuten Cadiz'eko muturrera eta an Korteak deitu eta Konstituzio bat 1812'an onartu.

Konstituzio onek Frantzia'ko Iraultzan ditu bere erroak eta aren antzera jokatu zuen: Arek Frantzia'ko lur-aldeak Departamentu egin zitun eta onek Espaiña'ko lur-aldeak, probinzia... Gauza guztietan, biak antzeko. Beste aldetik, berriz, "Monarquía Absoluta" ori, "Monarquía Constitucional" biurtu zuen.

Konstituzio onek, bere asieran eta itzez, Fuegoak defenditzen ditu; baña, osteko artikuluetan suntsitu eta desegin. Konstituzio au da gaur egunekoaren (1999) oiñarria, Espaiña'ren batasuna aldarrikatuz...

Euskalerrria'n asarre aundiak sortu zituen eta Espoz y Mina naparrak, Konstituzioa silla baten ipiñi, eta fusilatu egin zuen...

Espaiña'ko naaste-borraste onetan bere koloniak askatasuna lortu zuten Simon Bolibar'en gidaripean... Simon'en aurrekoek Bizkai'ko Bolibar'tik joanak ziran Ameriketara.

### **FERNANDO'REN ITZULIA**

Napoleon'ek eman zion Fernando'ri baimena Baiona utzi eta Espaiña'ra itzultzeko. Bere lenengo lana au izan zan: Cadiz'eko Konstituzioa kendu, Fuegoei egin zien iraiñagaitik... Liberalak, ordea, aurka ekin zioten errege Absolutistari eta militar iraultza bat eragin zuten Riego Komandantearen gidaripean Cadiz'ekoaren alde...

Azkenik Fernando'k onartu egin bear izan zuen Cadiz'eko Konstituzioa; baña, Erligioso guztien

aurkako artikulua ez zuen ez onartu, ez bete (1820-Martzoak 9).

Ondoren anarkia osoa ernatu zan eta Luis XVIII'garrenak bere gudariak bialdu zitun eta Cadiz menperatu zuen Fernando askatuz: 1823, Urriak bat.

Konstituzio onen berrikuntzak zabaltzen eta errotzen zijoazen baztarretan. Laguntza ederra artu zuten berri auk Maria Cristina de Borbon, Fernando'ren bigarren emaztearen eskutik. Fernando iltzean, bera izango da erre-ordezko alaba Isabel II gaztetxea dan bitartean.

### "LEY SÁLICA ETA PRAGMÁTICA SANCIÓN"

Liberalen aurkako regalistak arro zebiltzen Fuegoen alde garxak; baña, Fernando berak eman zion arrika Fueroari, Naparrei iru milloi errial eskatzen dienean, onela esanez: "Los Fueros y privilegios fueron concedidos por diversas consideraciones, pero no es justo que de ellos se irroguen perjuicios a la Monarquía".

Fueroa, euskaldunen Legedia oituretatik sortua, Gobernatzeko askatasuna, betiko eskubideak naasten ditu beste erregeek erri berriei emandako fuero eta abantaillekin; eta uek ziran jendea erri berrietara joateko asmakeriak... Euskaldunek Errege bat onartzen dutenean, aurretik eskatuko diote berari Fuero-legedia eta dituzten askatasunak onartzeko...

Regalistak zirenei ondo iruditzen zitzairen errege absolutista batek Fuegoen aurka jokatzea, orixe eskatzen bait zuen Absolutismoak, baita Cadiz'eko Konstituzioak ere...

Fernando, bere bigarren emazte Maria Cristina de Borbon'ek aurra emango ziola konturatu zanean, ba'da-ez-ba'da ere, Fernando V'garren Ley Sálica (1713'ko Maiatza) kentzen du beste lege berri baten bidez: Pragmática Sanción, 1830'ko Maiatzaren 29'an emana.

Carlos Maria Isidro, Fernando'ren anaia, lege orren kontra protestaka jeiki zan; bera jai() zanean Ley Sálica ori bizirik zegoen oraindik eta, neskatxoa jaiotzen ba'zan, berak, Carlos'ek, zeuzkan errege-aulkirako eskubide guztiak.

Alaxen gertatu zan gerta ere, eta umeari Isabel II ipiñi zioten izen eta Asturias'eko Printzesa izendatu zuten, erregiña izateko eskubidez: 1832'ko Abenduan. Urrengo urtearen Iraillean il zan erregea, bere ostean gerra zibilla utzirik, errege-aulkira nor igo erabakitzekeo...

Maria Cristina, erregiña ordeak, Frantzia'ko Iraultza eta Cadiz'eko Konstituzioaren ideien aldekoa zan: Erligio eta Fuegoen aurkako liberal ideiak...

Fernando'k bere anai Carlos Maria Isidro Portugal'era exilatu zuen; baña, ez alperrik. "Dios y Fueros" Ikurriña eskuetan zuela altxa zan, danen aurka. Liberalak ziran bere etsaiak. Auek "cristino" izena ere bazeramaten gañean. Maria Cristina'ren laguntzak zituztelako... Carlos Maria Isidro, errege absolutista zanez, berez, Fuegoen kontrakoa zan; baña, liberalen erlijio-aurkako amorrua ikusiz, jende fuerista askok ere, Erljoa (Dios) zeukaten biotzean jeiki ziranean... Batez ere, elizak eta komentuak eretzen asi ziranean eta Mendizabal'ek legea eman zuenean (1834-1835) Elizari bere ondasun guztiak kentzeko ("desamortización")...

### GURE GAITZEN SUSTRAIAK

Urriak 25, urtea 1839. Gure Fueroa eta Askatasunak orduantxe galdu ginduzen, Maria Cristina erregiña-ordekoak lege bat zabaldu zuen egunean. Onela zion Legearen Lenengo Arikuloak:

"Se confirman los Fueros de las Provincias Vascongadas y navarra, sin perjuicio de la unidad política de la Monarquías...". Arezkero bizi gera euskaldunok "sin perjuicio de la unidad política de España... 1978'ko Konstituzioak dionez, gudarosre espaiñolak gordeko du "unidad política" ori...

### ZERGAITIK ZAN LEGE ORI?

Carlos Maria Isidro bere eskubideen alde jeiki zanean, Isabel'enak ukatuz; bazan Eliza eta Fuegoen aurkako amorrua, Frantzia'ko Iraultzatik etorria. Iraultza onek kendu zituen Benaparroa'ko Lege-biltzarra eta euskaldunen Fuero eta askatasun osoak. Frantzia guztia Departamentuetan zatitu zuen; Laburdi, Zuberoa, Benaparroa eta Bearne, danak Departamentu bakar batean. Eta beste baztar guztietan ere jokaera berdiña erabilli zuen.

Orren antzera jokatuko dute geroxeago Espaiña'n ere Araba, Gipuzkoa, Bizkaia eta Naparroa espaiñolen probintziekin berdinduta... Eliza eta Fuegoen aurkako ekintza oiek, urduritasuna sortu zuten Euskalherri osoan eta orduan jeiki ziran euskaldun talde burrukarako prest...



## KARLISTADA ETA ZUMALAKARREGI

Taldeak sakabanatuta zebiltzan, bakoitza bere aldetik, Tomas de Zumalakarregi, Ormaiztegi'ko Koronela agertu zanean. Onek bildu zitun alkarrekin taldeak eta gudaroste sendoa osatu zuen talde guztiekin. Garaintzak bata bestearen ondoren etorri ziran eta Naparroa'ko Jeneral bezela izendatu zuten Tornas Zumalakarregi koronela 1833'an, Huarte Arakil'en. Berak 43 urte zituen.

Bere lenengo ekintza Orbaizeta'ko arma-fabriketatik kañoi bat, 200 fusil eta 50.000 kartutxo arrapatzea izan zan.

Urrengo urtean. 1834'ko Martxoan. Gazteiz'ko uria menperatzen du eta Apirillaren 30'an Quesada, Naparroa'ko Errege-ordekoa garaitzen du; berriro ere bai, Maiatzaren 26'ean.

Uztailaren 12'an, Carlos Maria Isidro sartu zan Dantxarinea'tik eta bere ordenatan jarri zuen bere burua Jeneralak Don Carlos'ekin zetozen lagunkopuruak ez zuen begi onez ikusten Zumalakarregi'ren eten-gabeko garaintzak...

Madrid'ek Quesada kendu eta Rodil ipintzen du bere ordeaz... Rodil kendu eta Espoz y Mina bere lekuan... 45 batalloi bildu zitun bere inguruan (Oraa, Lorenzo, Córdoba, Espartero, Jauregi eta O'Donnel beuren gudarosteekin) eta Zumalakarregi'k 22 besterik ez... Onen aldeko ekintza batzuen ondoren, Mina kendu eta Jerónimo Valdés, Gerrako Ministraria ipiñi zuten... Gudaroste aundi batekin Amezkoa'ra jo zuten, Don Tomas'en babeslekua eta 800 ildako, 600 preso eta 300 zauritakoak, 3.000 fusil galduak eta zaldien erdia sunzituta... Orra Valdes'ek jasotako zigorra.

1835'eko udaberria eldu zan eta gudarostea indartsua zan: ezustean basoetatik agertu eta etsaia jotzen zuen bildurra sarturik gorputzean...

## BILBAO'KO ERSITURA

Don Carlos'en konse-mailleek erabaki zuten Zumalakarregi'k Bilbao'ri esia ipiñi bear ziola. Jeneralak ez zuen erabaki ori gogoko; baña, Erregearen agindua zan. Ekainaren 13'an, 1835, 14 batalloi ipiñi zituen Bilbao inguruan. Ekainaren 15'an eraso nundik egin jakiteko, Begoña'ko leio batera agertu zan eta erreboteko bala batek iztarrean jo zuen. Ez zuen ematen zauri larririk zanik; baña, gaiztotu egin zan eta Zagama'ra eraman zuten senideetara. Septicemiak il zuen San Juan egunean, Ekainak 24.

Lau urtez segi izan zuen burrukak; baña, ustela gertatu zan eta Maroto, Karlista guztien Jeneralak, saldukeria egin zuen. Espartero Liberal Jeneralarekin bat eginda, Bergara'ko Besarkada aretan (Convenio de Vergara)... Saldukeri orren susmoa artuta zeukaten batalloi giputz eta bizkaitarrek eta ez zuten armarik laga nai.

Une aretan, Espartero berak, itza artuta, onela esan zien gudari euskaldunei: "Íñoiz inork Fuenroen aurka ezer egingo ba'lu, neure ezpata onek zainduko ditu dallen kontra". Berba aien ondoren laga zituzten armak: susmoa, ordea, ez zan sekula erabat aldendu.

1839'ko Urrillaren 25'ean gertatu zan besarkada negargarri ura. Andik gutxira, 1840'ean, iraultza baten bidez, bota zuten errege-aulkitik, Maria Cristina erregiña-ordekoa eta bere lekuan Espartero Jenerala ipiñi zuten: Espaiña'ko Jaun da Jabe. Une aretan bertan ematen du lege bat Euskalerra Espaiña'ko beste probintziekin bat izateko; bai gobernu arazoetan, bai justizian eta baita administrazioan ere. Mugak aldatzen ditu Ebro ibaitik Pirenée mendietara eta itxasoko portuetara, Madrid'eren menpean.

## BIGARREN KARLISTADA

Euskaldun batalloiak iruzurtzea eta engañatzeak, ondorenak ekarri zituzten. Isabel II' garrena, amairu urterekin ezkondu arazi zuten bere lengusu Francisco Asis de Borbón infantearekin. Isabel'en ama María Cristina Frantzia'ra bialdu zuten, gobernu osoa Espartero'ren eskuetan utzirik.

Orduan Konstituzio bernia eratu zuten 1845'an, Euskalerra'ri Espartero'k egiñiko kalte guztiak onarturik. Urteak pasa ziran 23, (1868) eta Isabel bota eta Errepublikak sortu zuten. Frantzi-Iraultzaren espiritu txarra, areagotu egin zan, Erljio eta Foruen aurka. Euskaldun askok armak artu zituzten eskuetan, aurreko karlistadaren antzera. Orain beste Carlos de Borbon batek, VII'garrenak, Erljio eta Foruen aldeko deia egiten du eta, bide batez, bere eskubideak defenditu: 1872, Apirillak 21.

Espaiña'ko Konstituzioaren aurkako burruka.

Lenengo karlisten gerratean Zumalakarregi eta bigarreanean Santa Kruz izan ziran euskaldun gudariarik ospatuenak.

\*

# BURDIN-OLAK (I)

## GURE LANAREN EDESTI LABURRA



Ola-gizonk     sutegian: Zuriz, goitik beera kapela aundiá

Euskalerrria beti izan da erri langillea eta gure lurra, batez be antxiña eta Kantauri Mendietatik itxas-aldera, lurgintzarako egokia izan ez arren, lurra emonkor biurtu dogu geienetan etxerako bear genduzan janariak lortzeko.

Antxiña-antxiña euskaldunak eiztariak eta arrantzaleak izan ziran, gure kobetako astarrenak agertzen dauskuen lez. Urte asko igaro eban aldi orrek. Orduan biziarea naikoa geldian zan. Besterik ez zan egiten aurrean egoana artu baiño.

Geroago etorri zan euskaldunentzat artzaintza-aldia. Aldi orren lekuko dira gure artean ain ugari agiri diran trikuarriak edo dolmenak. Aurrerapen aundia izan zan, edesti osoan aundiena diño batzuk, abereak ezi eta sendiaren ondora ekarte. Ba-dira iru milla urte inguru jokabide ori artu genduala. Gaiñera gure mendiak eta mendi-arteak egokiak ziran artalde aundiak janaritzeko.

Ondoren nekazaritza etorri zan: zelaietan berez sortzen ziran, berez lurrak emoten ebazan janariak, lan eginda ugaritu eta obetu. Orra or nekazari edo lugiñaren asmo ederra. Olako lanak egiteko egokia zan gure erriaren egoaldea, Araba'rik geiena eta Napparroaren egoalde zabala. Nekazaritza ondo be ondo batu zan euskaldunen izakereagaz eta gure sendiak bakar-etxeetan aurkitzen doguz euren soloak lantzen eta euren abereak zaintzen. Erromatarrak asko lagundu euskuen lanbide au indartzeko eta ia gure egunetara arte iraun dau biziera onek. Baserria eta nekazaritza izan dira gure oiturak, gure izkuntza eta gure biziera ondoen zaindu dabenak, arrantzaleakaz batera.

Baiña baserriagaz batera, antxiñatik, burdingintza izan da euskaldunen lana. Erri batzuk lur gitxi dauke eta oletatik bizi izan dira, esaterako Ubidea ta Otxandiano, naizta olakoetan be artzaiñak eta nekazariak osoan alboratuak izan ez.

Lurgintzagaz batera indar gitxiagokoak izan diran beste lan batzuk gogoratu bear dira. Esaterako gatzaren lana. Gogoratu Leniz erria edo, oraindiño bere gatz-lekuak agirian dauzan Añana'ko Gatzaga, Araba'n.

Gatzaren langintza onek aldi baten indar aundia izan

eban. Ez dogu aitzu bearko gatzaren matxinada eta "rebelion de la Sal", euskaldun batzuren eraiketagaz amaitu zana.

Liñuaren lana be izan dogu eta euleak ez ziran gitxi gure artean. Eta beste lan gogoangarri batzuk, esku-lanak, esaterako otzaragintza, buzterrigintza eta abar... Olakoak ia geure aldian ezagutu doguz.

Idaz-lan zabala litzake ba, euskaldunen langintza azaltzeko eta danari ez dautsagu oratuko, urrengo zazpi-bat idazlanetan Bizkai'ko burdingintza izango da aztertuko dogun gaia.

Erdi-Aroaren lenengo urteetan asita, Euskalerrriaren berezitasun argia izan da burdingintza. Euskaldunak zergaitik orretara jo eben itauntzen ba'dogu, zio batzuk agertuz erantzun geinke: Orretarako bear ziran len-gaiak ugari geunkezalako, orretarako bear zan indarra gure erreketan geunkalako, toki askotan meatztegi onak euki doguzalako. Eta gaiñera, burdingintzak beste irabazbide aundi bat sortu eban: garraioena. Meazak toki batetik bestera eroan bear ziran, errekak eta lanerako eskuak ugari egozan lekura. Orretarako agertu bear izan eben ididunak, Somorrostro'tik-edo meatza ekarteko "karreteruak".

Errekak bearrekoak ziran oleak bear dauzan tramankulua eragiteko, esaterako auzpoai, gabia eta txirriteai eragiteko. Egur-ikatza be bearrezkoa eben olak eta toki batzutan landaredia oso ugaria zan. Eta ola-gizonak eurak be toki ta sendi batzutan errezago gertatzen ziran etxeko ogibidea ori zalako gizaldietan zear.

Orregaitik, Bizkai'ko burdingintza ospetsua ta onartua izan zan Europa guztian, ez España-aldean bakarrik. Itxasontziak egiteko be bai.

XVIII gizaldira eldu gintzanean, burdingintzak indar aundiagoa artu eban beste toki batzutan, esaterako Suezia'n eta Errusian, burdiña askoz geiago ta obea lortzen eben oneik, eta gure burdiñeak beronen lentasuna galdu eban. Egin eban alegiña barriro indarra artzeko Euskalerrriaren Adiskideen Errege-alkarteak, baiña gure burdin-olak euren azkenera eldu ziran eta Laba Aundiak sortzea izan zan urtebide bakarra, orretarako dirua lortzeko gure meategi onak inglesai salduta. Gero Laba Aundiak be galdu doguz eta ez jaku geratzen ez labarik eta ez meatzik.

Eta zer egin eben euskaldun bizkaitarrak burdin-olakaz?

Oraindiño an-or-emen agiri dira ondakiñak, bideetan meatz-arri erreak be bai, baiña geieneak urun-errota biurtu ziran, olazarrakaz errotabarriak egin ebezan. Orra or beste irabazbide barri bat, baiña ez luzarorako. Guk gari gitxi geunkan, artoa eioteko beste bide errezago batzuk lortu ziran eta or daukaguz errotak geldi zezeri, ez dakit zeri, itxaroten.

Erri asmatzaillea gara, baiña onaiño eldu gara.

**Oarra:** "ZER" onetan agertuko doguzan zazpi-zortzi idazlanen oiñarria. Bizkai'ko Arrezki kutxak agertu eban "Colección de Ternas Vascos" aldizkaritik artua da. Joakin Almunia'k argitaratu eban lana da oiñari. Izen au ezagun dogu eta gaurko Joakin onen aita dala uste dot. Dana dala, iñoz itzuli egin arren, geienetan gauza baniak sartzen dodaz.

OLAZAR'tar Martin'ek

# FLOREN ZABALA BARTUTREN

## 45 URTE ITSASOAN

Artetxeko semea dogu Floren. Urte asko ez eze, bizipen asko be beraren lopearen ganean. Aor, osterantzean.

Zer: Berba bitan laburtu zure bizitzea, Floren.

F.Z.: Bakion jaio, itsasoan bizi, legorrera etorri ta bizitzeak ines egin.

Zer: Azaldu apur bat geitxuago zure bizitzea, gane-ganetik besterik ez bada be.

F.Z.: Bakion jaio nintzan 1914. urteko zezeilaren 23an. Amaika urtegaz morroi joan nintzan Durango aldeko Iurretara, jan truke. An lau urte bete ostein, itsasora, txo lez, mutil txiki lez. Berrogeita bost urte zoriontsu itsasoan. Mundu guztia ezagututen dodala esan neike.

Zer: Zelan sortu jatzun itsasorako zaletasuna?

F.Z.: Anaiarik zaarrena eta leengusu bat itsasgizonak ziran eta geroari be begiratu bear jakola-eta, etxera be, gurasoei lagunduteko diru apur bat be bialdu bear zala-eta, itsasorako atek zabaldu eustezan. Ilabeteko soldatatzat 24 ogerleko jaso nebazan eta danok pozik.

Zer: Oporretan beintzat etorriko zintzazan Bakiora?

F.Z.: Bai, zera! Oporrik ez dot ezagutu be egin. Opor antzeko batzuk ezagutu nebazan Jobitagaz (Sumusukoa) ezkondu nintzanean. Nire opor bakarrak, emaztea nigaz itsasora ibilaldia egitera etorten zanetan izaten ziran.

Zer: Entzun dot urpekontzian be ordu batzuk emon dozuzala.

F.Z.: Bi mila bat ordu egingo nebazala uste dot. Errez esaten da, baina, urpeko bizitzea gogorra da. Eskerrak, noizik beinean ur azalera igoten genduana, arnasa artuten, eta lagun onak nebazana.

Zer: Ainbeste urtetan itsasoan, abenturak be izango zenduzan, ezta?

F.Z.: Ez da neure bizitzan dana gozoa izan, ez. Neureak be ikusi bear izan dodaz: ekatx baltzak, marrazoen artean egun latzak, itsasontzi ondatzeak eta alkar joteak, an or emen gerrateak... Danetarikoak ikusi bear izan dodaz.

Zer: Oporrik ez, baina aurkitu zenduan ba Jobitagaz maitemindu eta ezkonduko astiuneren bat, ezta?

F.Z.: Jobita Santanagaz 1948. urtean ezkondu nintzan, 34 urte nebazala.

Zer: Egia ete da antxiñako esakera zaar au: "portu baktotxean maite bat"?

F.Z.: Au be esakera zaarra da: "esanak eder, eginak lander", etorri ta ikusi.

Zer: Zenbat urtegaz jubilatuta zintzazan?

F.Z.: Irurogei ta amarregaz edo.

Zer: Eta orain non bizi zara?

F.Z.: Bilbon neguan, baina beti Bakiorantza begira, eta udan Bakion. "Edozein txoriri eder bere abia". Ez dot Bakio lango erririk munduan aurkitu.

JON AINGERU GOIKOETXEA

### BERBALAPIKOA

ines egin = iges egin, alde egin. (Bakioko berbea)

urpekontzi = urpean ibiltzen dan itsasontzia.

ekatx = itsasoko afontua.

marrazo = tiburoi.

## PUBLIZITATEA ETA JOSTAILUAK

Zemendiaren 25ean, jostailuei buruzko berbaldia euki genduan Kultur Etxean. Bertan, jostailuak dirala -eta, ainbat gaitan sakondu eben. Berbaldi onetan etorri ez zirenentzat zerrendatxu au aitatzea interesgarria dala ikusi dogu eta ona ekarri deusuegu.

### Jostailuak:

– Umearen nortasunaren garapenean bost parametro dagoz: afektibitatea, mugimendua, adimena, sormena eta alkarkoitasuna.

– Jostailuak umeari, bere burua, gorputza, erreakzinoak, izakerea, etab. ezagutzen laguntzen deuto. Baita beraren ingurua eta lagun urkoak be.

### Erosi aurretik kontuan izan bearreko faktoreak:

– Etxe baktotzeko giroa.

– Ezkuntza moetea.

– Neba-arrebarik eukitea.

– Norberearen izakerea.

Ez da aaztu bear, adin bakoitxen betebear edo aspektu ezbardinak lantzen eta garatzen dirana. Au dala-eta, adin baktotxari jagokon jostailurik egokiena topatu egin bearko dogu. Ori bai, erosketak, nasai eta arineketa ibili barik egin bear dira.

Jostailuen publizitatea egiterakoan, zuzenak ez diran aibat mezu zabaltzen dira. Jostailu orreen aldeko publizitate

mezuak aztertzerakoan, asko eta asko faltsuak dirana ikusi geinke.

### Jostailuaren aurrean gure buruari egiteko itaunak:

Umearen adinerako beren beregia da?

– Jostailu orregaz bein eta barrero ibilteko beste interesik sortuko jako?

– Materiala egokia da? Luzaroen iraugo dau?

– Lagundiko deuto umeari beraren irudimena, sormena eta trebetasuna lantzen?

– Gustora egongo da jostailu orregaz?

– Urtebete barru gogoko izaten jarraituko dau?

– Jostailua era batera baino geiagotara erabili leiteke?

– Beste persona batzuk edo izadia ezagutzen lagundiko deuto?

– Beste pertsonak errespetatzen, eurokaz beba egiten eta malgutasunez jotzen lagundiko deuto?


– Beste sexuko pertsonak bardintzak eta baliotsutzat artzen irakatsiko deuto?

### Azkenik, gurasoen kontuan eukiteko beste aolku bi:

• Gurasoen esku artzea edozein jostailu baino askoz garrantzitsuagoa da.

• Olgetea bera da, eta ez jostailua, umeek eta guk bear dogun oparia.


LAUKIZKO



**EUSKERAZALEAK**

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.  
48001 BILBAO

Akelarre. Nestor Basterretxea



## BAT GATUZ EUSKAL KULTUREAGAZ

Erakundearen konpromezutzat artuten dogu, geure erri onen arimeagaz bat egitea. Orrexegaitik lagunduten deutsegu gogo osoz, geure nortasun berezia indartuten deuskuen kultur adierazpenai.

Eta aparteko arreta iminten deusagu, kultur adierazpenen artean, gure ezaugarririk gorena dan euskerearen garapenari.

**EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK**



**BBK**  
Bilbao Bizkaia Kutxa